



Munduko Hizkuntza Ondarearen
UNESCO Katedra

Cátedra UNESCO
de Patrimonio Lingüístico Mundial

UNESCO Chair
on World Language Heritage



[2015 urteko

JARDUERA- MEMORIA]

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. 2015 Urteko jardueren laburpena
3. Jarduerak
 - 3.1. Proiektuak
 - 3.2. Formakuntza eta Zabalkundea
 - 3.2.1. Katedrako kideen lankidetzaren titulazio ofizialetan
 - 3.2.2. Katedraren antolatutako ekitaldiak
 - 3.2.3. Katedraren parte hartzea hitzaldi eta kongresuetan
 - 3.3. Katedraren presentzia hedabideetan
4. Argitalpenak

1. SARRERA

2006ko abenduan sinatu zen UNESCO eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) arteko hitzarmena Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra sortzeko.

2007ko otsailean, UPV/EHUko errektoreak Itziar Idiazabal Gorrotxategi, UPV/EHUko Euskal Filologiako Katedraduna, izendatu zuen Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren zuzendari.

2007ko urrian Katedra UPV/EHUko Zubiria Etxean kokatzen da (Agirre Lehendakariaren Etorbidea 81, E-48015 Bilbo).

UNESCO Etxearen diru ekarpenari esker, Katedraren jarduerak 2007-2008 ikasturtean hasten dira. Harrez geroztik Katedrak dibulgazio, formakuntza, ikerketa eta sentsibilizazio ekimenak burutzen ditu erakunde ezberdinen laguntzari esker.

Katedra, gaur egun, **Batzorde tekniko iraunkorrak** eta **Aholku batzordeak** osatzen dute.

2015eko Batzorde tekniko iraunkorra

- Itziar Idiazabal (UPV/EHU), Euskal Filologia Katedraduna.
- Ane Ortega (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Ingeles Filologiako irakaslea.
- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Andoni Barreña (Salamancako Unibertsitatea), Euskal Filologian Doktorea eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Euskal Filologiako irakaslea.
- Margareta Almgren, Hizkuntzalaritzan Doktorea eta UPV/EHUko HIJE taldeko ikerlaria.
- Ines Garcia Azkoaga (UPV/EHU), Euskal Filologian Doktorea eta hizkuntza irakaskuntzan aditua.
- Gontzal Aldai (UPV/EHU), Hizkuntzalaritzan doktorea eta hizkuntzalaritza tipologian eta hizkuntzalaritza diakronikoan aditua.
- Mikel Mendizabal (Garabide Elkarte), hizkuntza eta biologia aniztasunean ikerzailea.

- Ibon Manterola, (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan Doktorea.
- Estitxu Aranbarri, hizkuntza heziketan ikertzailea.
- Manel Pérez-Caurel (UPV/EHU), Hizkuntzalaria eta hizkuntza gutxituetan aditua.
- Nora Etxaniz, Zuzenbidean lizentziatua eta ikertzailea giza eskubideetan, bereziki hizkuntza eskubideak

Aholku batzordea

- Xabier Aierdi, UPV /EHUko Soziologia Katedraduna.
- Maria Jose Azurmendi, UPV/EHUko Soziolinguistika Katedraduna.
- Maitena Etxebarria, UPV/EHUko Hizkuntzalaritza Orokorreko Katedraduna.
- Patxi Goenaga, UPV/EHUko Euskal Filologia Katedraduna.
- Ruper Ormaza, UNESCOEtxearen Lehendakaria.
- Arantza Acha, UNESCOEtxearen Zuzendaria.
- Ane Ortega (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Ingeles Filologiako irakaslea.
- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Euskal Filologiako irakaslea.

2. 2015 URTEKO JARDUEREN LABURPENA

Euskal Herriko Unibertsitateko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak honako jarduerak burutu ditu 2015 urtean zehar:

- Hizkuntza gutxituen komunitateekin lankidetzan, alde batetik euren jatorrizko hizkuntzen normalizazio prozesuak bultzatzeko eta bestetik irakaslearen formakuntzan laguntzeko. Katedrak ekarpen garrantzitsua jaso zuen Eusko Jaurlaritzatik (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), bereziki Kolonbiako hizkuntza komunitateekin lan egiteko.
- Ezagutzaren dibulgazioaren eremuan, hainbat jardunaldi antolatu dira eta beste erakunde batzuek antolatutako kongresu eta ikastaroetan parte hartu dugu, beti ere hizkuntza aniztasunaren aldeko sentsibilizazioa eta irakaskuntza eleanitzeko prestakuntza bultzatuz.
- Ahalegin berezia egin da katedraren presentzia bultzatzeko hedabideetan, sare sozialetan eta argitalpen zientifiko espezializatuetan.
- Munduko eta bertako hizkuntza aniztasunari buruzko ikerketak burutu dira, aniztasun hori sustatu edo ahultzen duten baldintzei buruzkoak barne. Elebi/eleaniztasuna eta hezkuntza programa elebidun eta eleanitzak oso garrantzitsuak dira Katedrarentzan bai ikerketa programetan eta baita ere lankidetzan proiektuetan.
- Elkarlan hitzarmenak sinatu dira hainbat euskal eradundeekin, alde batetik hizkuntza lankidetzan bultzatzeko eta hizkuntza, garapenerako lankidetzan irizpide gisa kontuan hartu dezagun, eta bestetik, Euskal Herriko hizkuntza aniztasunari buruz sentsibilizazio ekimenak burutzeko. 2015ean Azkue Fundazioarekin sinatu da hitzarmen bat. Bestalde, Katedraren bitartekotzari esker UPV/EHUK eta Caucako Unibertsitateak esparru-hitzarmen bat sinatu dute. Azkenik, Katedra Euskal Herriko UNESCO Sarearen kide bihurtu da.

3. JARDUERAK

3.1. Proiektuak

i. Kolonbiako nasa-yuwe hizkuntzaren indarberritzea: baliabide didaktikoak eta hezkuntza elebiduna bultzatzeko formakuntza eta programazioa

Proiektu hau Katedrak, Garabidek, Soziolinguistika Klusterrak eta Begoñako Andra Mari Irakasle Eskolak (BAM) diseinatu dute elkarlean, baina beti ere nasayuwe komunitatearen partaidetza zuzenarekin. Proiektuaren helburua, hezkuntza elebidunaren programazioari buruz eta material didaktikoei buruz aholkutzea da. Horretarako, lehenengo pausua irakurketa-idazketa prozesuak aztertzea izan da. 2015 urtean zenbait topaketa burutu dira jarduketa plana lantzeko eta materialak esperimintatzeko. Bileren hauetan parte hartzeko, Mendizabal, Uranga eta Ortega katedrakideak eta Arkaitz Zarraga laguntzaileak Kolonbian izan dira urtean zehar. Espero dugu 2016an formakuntzak eta tailerrak jarraitzea jarduketa plana aurrera eramateko. Ekimen hauek gauzatu ahal izateko Katedrak diru-laguntza jaso du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saitetik, eta baita ere Berriz, Leioa eta Elorrioko Udaletatik.

ii. Garapenerako lankidetzaren proiektuetan hizkuntza-irizpidea txertatzeko proposamena

Proiektu hau, UNESCOetxea, Soziolinguistika Klusterra eta Garabiderek batera bideratu da. Helburua, hizkuntza aniztasuna kontuan hartzen duten irizpideak eratzea da garapenerako lankidetzaren aplikatzeko, bestelako oinarritzko irizpideak (genero berdintasuna edo jasangarritasuna) aplikatzen diren moduan. Honekin lortu nahi dena nazioarteko lankidetzaren hizkuntzetan arreta jartzea da, hau da, jatorrizko hizkuntzen (batez ere gutxituak) egoerak leku bat izatea proiektuak antolatzen orduan. Proiektu honen emaitzetako bat Urangaren 2013ko argitalpena izan da eta argitalpen honetan oinarrituta katedrako kideek zenbait formakuntza eman dituzte hizkuntza lankidetzari buruz.

iii. Beningo bariba hizkuntzaren normalizaziorako teknikarien prestakuntza.

Proiektu hau "Vie pour tous" (Parakou, Benin) gobernu kanpoko erakundeak katedrari egindako eskaera batetik sortu zen. Hain zuzen, bariba hizkuntzaren erabilpena eta irakaskuntza sustatzeko asmoarekin, GKE honek irakasleak eta normalkuntza teknikariak prestatu nahi ditu. Horretarako, Katedrak bariba komunitateko bi pertsonen (kazetari bat eta hizkuntzalari/irakasle bat) parte hartzea lagundu du Garabide Elkarteak antolatzen duen irakasleen prestakuntza programan. Proiektu honek ez dugu diru-laguntzarik lortu 2014 eta 2015eko deialdietan. 2016an berriro egingo dugu eskaera Asocion Africanista Manuel Iradier elkartearen laguntzarekin.

iv. Elebitasuna eta eleaniztasunaren garapena haurtzarotik heldutasunera bitartean, euskaraz eta inguruko hizkuntzetan (FFI2012-37884-C03-01 / IT676 - 13)

Ikerketa proiektu hau UPV/EHUko HIJE (Hizkuntzaren Jabekuntza eta Erabilera) ikertaldeak bideratzen du, Katedrako kide batzuk ikertalde horretan parte hartzen dutelarik. Proiektua Espainiako MINECO (Ministerio de Economía y Competitividad) eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzari esker eraman da aurrera 2012tik 2016ra. Itziar Idiazabal da proiektu honen ikerlari nagusia.

vi. Murgilketa bitartez euskaldundutako hiztun berriak: jarrerak eta identitatea (FFI2012-37884-C03-03).

Katedrako ikerlari batzuk ari dira burutzen Deustuko unibertsitatera atxikita dagoen proiektu hau. Proiektua 2012-2016 bitartean eraman da aurrera Bizkaiko Foru Aldundiko eta Espainiako MINECOtik (Ministerio de Economía y Competitividad) jasotako diru-laguntzei esker. Estibaliz Amorrortu da proiektu honen ikerlari nagusia.

Proiektu hau, europar *COST New Speakers in a Multilingual Europe: Opportunities and Challenges* (ISCH COST Action IS1306) proiektuan integratu da, Bernadette O'Rourke-k zuzendutakoa eta 2013ko maiatzaren 15ean onartua. Katedrako Esti Amorrortuk eta Ane Ortegak "Expert" eta "MC Substitute" gisa hartzen dute parte ikerketaren 1. lerroan (Indigenous minority languages). 2014 urtetik aurrera Katedrako Itziar Idiazabal eta Ibon Manterola ere proiektu honetan laguntzen ari dira.

vii. ELEBIDUN proiektua. *Etude des compétences linguistiques chez les élèves de l'école primaire dans le cadre d'une scolarité bilingue (basque-français)*. IKER (UMR5478) Baiona/Bayonne

Proiektu honen helburua Iparraldeko Lehen Hezkuntzako programa elebidunen ikasleek, frantsesez eta euskeraz duten gaitasunak aztertzea da. Jon Casenave da proiektu honen ikertzaile nagusia eta Katedrako Itziar Idiazabalek, Ibon Manterolak eta Ines Garcia-Azkoagak ikertalde zientifikokoan parte hartzen dute. Talde honek 2015etik, ikaskuntza eta didaktika elebi/eleaniztunari buruzko ikerketa lerroa kudeatzen du IKER (CNRS, UPPA y U. De Bordeaux) Institutoan.

viii. Hizkuntza gutxituak eta hizkuntza aniztasuna proiektua. Azkue Fundazioa 2015-2017.

Proiektu honen helburua, munduko eta Euskal Herriko hizkuntza aniztasunari buruzko informazioa zabaltzea da. Proiektuaren eremuan, Katedrak mintegiak eta jardunaldiak antolatzen ditu, ekitaldi horietara kanpoko adituak ere gonbidatuz. Horrez gain, Nazioarteko Ama Hizkuntzaren Eguna dela eta, urtero topaketa bat antolatzen dugu Azkue Fundazioaren egoitzan. Bestalde, Azkue Fundazioaren webgunean, Katedrak elikatzen duen atal bat sortu dute. Bertan, munduan gertatzen diren hizkuntza aniztasunari eta hizkuntza gutxituei buruzko istorio interesgarriak kontatzen ditugu gaztelaniaz eta euskeraz (berri hauek Azkue Fundazioaren sare sozialetan ere zabaltzen dira). Azkenik, hizkuntzei buruzko materialak ere editatu ditugu (adib. 2016an Europako Hizkuntza Aniztasunaren Mapa elebiduna).

ix. Hezkuntza eleaniztuna eta hizkuntzen trataera bateratua. EHUA15/22.

Hezkuntza eleaniztunari buruzko proiektu honen helburua, euskeraz, gazteleraz eta ingelesez dauden material didaktikoak aztertzea da Hizkuntzen Didaktika Integratuaren ikuspegitik. Ikertzailea: Ibon Manterola.

3.2. Formakuntza eta Zabalkundea

3.2.1. Titulazio ofizialetan emandako ikastaroak

- **Andoni Barreña:** "Euskararen jabekuntza haur elebakar eta elebidunengan". Master ofiziala: Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Hizkuntzalaritza aplikatuko ikastaro aintzinatua. 2014-2015 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

- **Andoni Barreña:** "Adquisición de lenguaje y aprendizaje de la L2". Master Ofiziala "La enseñanza de español como lenguaje extranjera" (Salamanca Unibertsitatea, Gaztelera Departamentua). 2014-2015 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

- **Andoni Barreña:** "Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan". HIZNET Programa - Hizkuntza Plangintzarako Masterra. Eusko Ikaskuntzak - Sociedad de Estudios Vascos (Asmoz Fundazioa) Euskal Herriko Unibertsitateak (Departamento de Sociología) antolatuta. 2014-2015 Ikasturtea. Iraupena: 10 ordu.

- **Belen Uranga:** "Hizkuntza-ekologia". HIZNET Programa - Hizkuntza Plangintzarako Masterra. Eusko Ikaskuntzak - Sociedad de Estudios Vascos (Asmoz Fundazioa) Euskal Herriko Unibertsitateak (Soziologia Departamentua) antolatuta. 2014-2015 Ikasturtea. Iraupena: 10 ordu.

- **Belen Uranga & Mikel Mendizabal:** "Bertako hizkuntzak, garapenerako lankidetzarako irizpide". Garapenerako lankidetzarako Kurtso Monografikoa 2014-2015, EHU/UPVko Garapenerako Lankidetzarako Bulegoa, Donostia 2015/03/23. Iraupena: 3 ordu.

- **Belen Uranga & Mikel Mendizabal:** "Bertako hizkuntzak, garapenerako lankidetzarako irizpide". Garapenerako lankidetzarako Kurtso Monografikoa 2014-2015, EHU/UPVko Garapenerako Lankidetzarako Bulegoa, Leioa 2015/04/27. Iraupena: 3 ordu.

- **Gontzal Aldai:** "Euskara hizkuntza tipologiaren eremuan" Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra, Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. 2014-2015 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

- **Ibon Manterola:** "Hizkuntza ukipena" Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. 2014-2015 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

- **Ibon Manterola:** "Social-Discursive Analysis and Language Didactics" Master Ofiziala: Language Acquisition in Multilingual Contexts. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. 2014-2015 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

- **Ines M. Garcia Azkoaga:** "Lógica, Semántica y Pragmática Computacional" Master Ofiziala: Análisis y Procesamiento del Lenguaje/Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. 2014-2015 Ikasturtea. Iraupena: 3,5 ECTS, 35 ordu.

- **Itziar Idiazabal:** "Hizkuntzen aldakortasuna eta aldaerak. Euskararen didaktikarako ekarpenak." Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra, Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. 2014-2015 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

- **Itziar Idiazabal, & Ines Garcia-Azkoaga:** "Hizkuntza aniztasuna eta hizkuntzen didaktika". Master Ofiziala: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterra. Hizkuntzalaritza aplikatuko funtsezko ikastaroa II. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. 2014-2015 Ikasturtea. Iraupena: 4,5 ECTS, 45 ordu.

- **Mikel Mendizabal:** "Lenguas propias como criterio en la cooperación para el desarrollo". Garapenerako lankidetzak Kurtso Monografikoa 2015-2016, EHU/UPVko Garapenerako Lankidetzak Bulegoa, Donostia 2015/11/02. Iraupena: 3 ordu.

3.2.2. Katedrak antolatutako ekitaldiak

- 2015eko otsailak 19. Jardunaldia: Lehen hizkuntzatik eleaniztasunera: gehitu kendu barik/ De la lengua primera al plurilingüismo: sumar sin restar. Ekitaldi honetan Euskal Herrian bizi diren etorkin batzuek (Paraguay, Pakistan, Senegal, KED, Etiopia, Benin eta Filipinasekoak) parte hartu zuten eta denen artean sortu zen eztabaida izugarri aberasgarria izan zen. Topaketa honen helburua eleaniztasunerantz bidea nola egin aztertzea zen. Euskararen Etxea, Bilbo.

- 2015eko apirilak 28. Mintegia: *La enseñanza de la lengua gallega en el Bierzo: otras prácticas de enseñanza multilingüe*. Asociación Berciana da Lingua Xarmenta-ko **Rafael Adán** irakaslea gonbidatu genuen mintegi hau emateko. Mintegia unibertsitate ikasleei eta publiko orokorrari zuzenduta zegoen. Ekitaldi hau antolatzeke, Katedrak Azkue Fundazioaren eta Deustuko Unibertsitateko Galiziako Ikaskuntzen Katedraren laguntza izan zuen. Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea, Bilbo.

- 2015eko apirilak 29. Mintegia: *La enseñanza de la lengua gallega en el Bierzo: otras prácticas de enseñanza multilingüe*. Asociación Berciana da Lingua Xarmenta-ko **Rafael Adán** irakaslea gonbidatu genuen mintegi hau emateko. Mintegia unibertsitateko ikasleei eta publiko orokorrari zuzenduta zegoen. Ekitaldi hau antolatzeke Katedrak, Azkue Fundazioaren eta Deustuko Unibertsitateko Galiziako Ikaskuntzen Katedraren laguntza izan zuen. Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatea, Gasteiz.

- 2015eko ekainak 2. Mintegia: *Neofalantismo, Ideología y Práctica Social*. UPV/EHUko HIJE taldeak gonbidatuta Katedraren laguntzarekin, Vigoko Unibertsitateko **Fernando Ramallo**-k, galizieraren eta hizkuntza gutxituen hiztun berriei buruzko mintegi hau eman zuen. Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatea, Gasteiz.

- 2015eko irailak 1 eta 2 **Belen Uranga** (zuzendaritza partekatua: Jokin Azkue). Mintegia: "Euskararen eta gainerakoen tokia hizkuntza aniztasunean, Koldo Mitxelenaen eta Ramón Piñeiroren ekarpenen harira". UPV/EHUko Uda Ikastaroa, Donostia.

- 2015ko irailak 10. Mintegia: *Lengua, Identidad y Diáspora en Argentina: el caso de la comunidad gallega en Buenos Aires*. Katedrak gonbidatuta HIJE taldearen laguntzarekin, Kieleko Unibertsitateko **Facundo Reyna Muniain**-ek, Argentinako galiziar diaspora eta hizkuntzari buruzko mintegi hau eman zuen. Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatea, Gasteiz.

- 2015ko abenduan 10. Jardunaldia: *Ingeniería Didáctica para la Enseñanza Plurilingüe*. "Para una Ingeniería Didáctica de la Educación Plurilingüe" I. **García-Azkoaga & I. Idiazabal** (Eds) liburuaren aurkezpena. Aurkezpenaren ekitaldian liburuan parte hartu zuten zenbait nazioarteko aditu izan ziren, adibidez Ginebrako Unibertsitateko **Joaquim Dolz** eta **Sandrine Aeby**. Aditu hauek euren azken ikerketak aurkeztu zituzten hizkuntzen didaktika eta eleaniztasunari buruz. Jardunaldi hau Katedrak eta EHUKO HIJE taldeak antolatu zuten. Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatea, Gasteiz.

3.2.3. Katedraren parte hartzea hitzaldi eta kongresuetan

- Almgren, M. & Manterola, I. "Le développement des capacités langagières orales en espagnol L2 chez des élèves de basque L1" komunikazioa EUROSLA 25 kongresuan. Aix-en-Provence (Francia), 2015/08/27.

- Amorrortu, E. "Euskararen normalizazioaren erronkak". Intervención en mesa redonda: Euskararen Normalizazioa Zikloa. Organizado por Ezkerra berri Fundazioa en Arrupe Etxea de Bilbao, 15/01/2015.

- Amorrortu E. & Urla, J.: "Learning Basque outside the family: what makes me an authentic speaker?" *Joan-etorri Basque Studies Symposium*-ean komunikazioa. Boise (USA), 29 July 2015.

- Barreña, A. "Zer egin dezake euskaldungoak munduko hizkuntza-galerari aurre egiten laguntzeko?". Charla en Ciclo *Hitz Adina Mintzo (Lenguas Minorizadas del Mundo en la plaza)*. Oihaneder Euskararen Etxea, Vitoria-Gasteiz, 2015/09/23

- García Azkoaga, I.M., "Ahozko hizkuntza, ikerketarako unibertso bat". Ponencia Invitada. Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak. UPV/EHUko Udako Ikastaroak (Cursos de Verano UPV/EHU, 2015), San Sebastian-Donostia, 2015, 3 de julio.

- Idiazabal, I., García Azkoaga, I., Larringan, L.M., Almgren, M., Diaz de Gereñu, L. & Manterola, I. "De la adquisición de la lengua a la enseñanza-aprendizaje" komunikazioa. "Ikasgela hizkuntzaren ikas-irakaskuntzarako ikerketa gunea" kongresuan. Eskoriatza, 2015-01/22.

- Idiazabal, Itziar. "Eskolak euskaldunduko al du Araba?" Intervención en mesa redonda: Euskararen Normalizazioa Zikloa. Ezkerra berri Fundazioa/Arabako Foru Aldundia. Vitoria-Gasteiz, 28/01/2015.
- Idiazabal, Itziar. Mintza Kafea: "Euskararen erabilera Gasteizko gazteen artean", Koldo Mitxelena BHI Vitoria-Gasteiz, 21/04/2015
- Idiazabal, Itziar, "*Euskararen irakaskuntza elebidun-eleanitzaren ekarpen eta erronka didaktikoak*" Conferencia invitada: *Hizkuntzalari Euskaldunen II Topaketa: Eleaniztasunak baditu hamaika aurpegi*. UEU, Eibar, 2015, 2 de julio
- Idiazabal, Itziar, "Ahozkoaren irakaskuntzan zer berri?" Intervención en mesa redonda: Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak. UPV/EHUko Udako Ikastaroak (Cursos de Verano UPV/EHU, 2015), San Sebastian-Donostia, 2015, 3 de julio
- Landabidea, X. Manterola, I., Berasategi, N., Salces, G. & Goirigolzarri, J. "Hiztun eta erabiltzaile berriak: euskararen normalizaziorako gakoak" mahai-ingurua. Iker gazte Kongresua. Durango, 2015/05/14.
- Larringan, L.M.; Idiazabal, I & Garcia-Azkoaga, I.M. Ponencia "Análisis de transferencias discursivas euskara-castellano en textos de escolares bilingües". GRATO 2015 (Gramática y Texto), Lisboa, 02/07/2015.
- Larringan, L.M.; Idiazabal, I. & Garcia-Azkoaga, I.M.: "El Aprendizaje de Lenguas y Literaturas en un contexto de Educación Plurilingüe: Hacia la integración de contextos culturales y literarios como herramienta de aprendizaje". XVI Congreso internacional de la sociedad española de didáctica de la lengua y la literatura Alicante, 10, 11 y 12 de diciembre 2015
- Manterola, I. "Elebitasun orekatutik eleaniztasunera-Del bilingüismo efectivo al plurilingüismo". Ikastolako gurasoei zuzendutako hitzaldi gonbidatua Lauro Ikastolan, 2015/03/03.
- Manterola, I. "Éducation plurilingue et langues minoritaires: problématiques de l'usage et d'ici". Hitzaldi gonbidatua "Altérités linguistiques : Ecole et plurilinguisme des élèves" ikastaroan. Lausanne, Haute Ecole Pédagogique de Vaud. 2015/04/27.
- Manterola, I. "L'enseignement et l'apprentissage de la langue basque dans un contexte plurilingue: enjeux sociolinguistiques et didactiques". Hitzaldi gonbidatua "Didactique de langues et plurilinguisme" ikastaroan. Geneve, Université de Genève. 2015/04/28.
- Manterola, I. "Hizkuntzak ikasteko jarrera eta motibazioak". Etxepare Institutua: Atzerriko unibertsitateetan eta goi mailako zentroetan euskara irakasteko prestakuntza ikastaroa. Donostian, 2015/10/16.
- Ortega, A. & Amorrortu, E. (2015). "'The way I speak': The impact of language competence on language use and linguistic identity among new speakers of Basque". COST Action IS1316 Event Linguistic and Sociolinguistic Perspectives on New Speakers in a Multilingual Europe. University of Central Lancashire, Cyprus, 2015ko urriak 14 eta 16.

- Pérez-Caurel, M. "Bidasoa: Eskualde bat hiru hizkuntza" Bidasoa Activa & Langune antolatutako *Foro de Participación del Territorio Multilingüe*-n (eus-fr-es) parte hartzea. Irun, 2015/03/03.
- Pérez-Caurel, M. "Encuentro de Cátedras UNESCO del Estado español y del Mediterráneo 2015". Eztabaideetan eta lan bileretan parte hartzea . Patronat Sud-Nord de la Universitat de València-k antolatuta, València, 2015ko azaroak 23-25.
- Pérez-Caurel, M. UNESCOk antolatutako "Coordination Meeting of category 2 institutes and centres (C2Cs) under the auspices of UNESCO and UNITWIN/UNESCO Chairs related to culture 2015"-an parte hartzea. Paris, UNESCOren egoitza, 2015/12/14.
- Uranga, B. *DikomA* (Diskurtsoaren bitartez Komunitatea Ahalmentzea) proiektuaren aurkezpena. Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoan oinarritutako txostena eta *EkoLingua* jokoaren sortzailea. Oñati, 2015eko otsaila.

3.3. Katedraren presentzia hedabideetan

2015ean Katedra sarri agertu da komunikabideetan eta agerpen hauen helburua alde batetik Euskal Herriko eta munduko hizkuntza aniztasuna ezagutzera ematea izan da eta beste batetik, hezkuntza eleanitzaren onurei buruz hitz egitea. Komunikabideekin izan dugun harremanetan ez dugu bakarrik katedrako kideek parte hartu, hitzaldietara kanpotik ekarri ditugun adituek ere parte hartu dute.

Urtean zehar askotan egon gara presente irratian. Nazioarteko Ama Hizkuntzaren Eguna dela eta Itziar Idiazabalek *Boulevard* (Radio Euskadi) saioan parte hartu zuen eta Ane Ortegak *Más que palabras*-en (Radio Euskadi). Katedrako beste kide batzuk **Radio Euskadi** eta **Bizkaia Irratiko** zenbait saioetan agertu dira gure Kolonbiako hizkuntza lankidetzaren proiektuari buruz mintzatzeko.

Telebistari dagokionez Katedra *Ertzak* (Hamaika TB) saioan agertu zen Nazioarteko Ama Hizkuntzaren Eguna dela eta, Bilbon antolatu genuen ekitaldiari buruz hitz egiteko. Horrez gain, Itziar Idiazabal eta Ibon Manterola elkarrizketatu zuten *Tribuaren berbak* (ETB1) saioan eta Andoni Barreña *Azpimarra*-n (ETB1).

Idatzizko prentsan, galizieraren irakaskuntzari buruz antolatutako hitzaldi biak direla eta, **Bierzo Diario** egunkari digitalean Katedrari buruz hitz egin zuten. Bestalde, Itziar Idiazabalen artikulu bat argitaratu zuten Hiruka aldizkarian (41. zbk) 2015eko Euskararen Egunari buruz. Artikulu hau euskaraz, gazteleraz, katalanez, frantsesez eta suedieraz argitaratu zen.

Gainera, Katedraren bitartekotzari esker, Fernando Ramallo (Universidade de Vigo-ko irakaslea eta Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren Adituen Batzordearen kidea) **Berria**-n elkarrizketatu zuten eta Rafael Adán (Asociación Berciana da Lingua Xarmenta) **Argia** aldizkarian.

4. ARGITALPENAK

- Aeby, S. & Almgren, M. (2015). "Los gestos didácticos y la alternancia de lenguas en la enseñanza en L1 y L2 entre los 5 y los 11 años". En *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*. Inés M^a García-Azkoaga & Itziar Idiazabal (eds.) Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (79-100).
- García-Azkoaga, Inés M^a & Idiazabal, Itziar (eds.) (2015). *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*. Bilbao: Universidad del País Vasco. (ISBN: 978-84-9082-205-0)
- García-Azkoaga I.M., Idiazabal, I. & Larringan L.M. (2015). "Narratze-trebetasunen garapena. Ipuin bera eta ume bera hiru adin ezberdinetan". In Ezeizabarrena, Maria José & Gómez, Ricardo (arg.), *Eridenen du zertzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*. Bilbo: Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, 227-243. (ISBN: 978-84-9860-910-3).
- Idiazabal, I. & García-Azkoaga, I.M. (2015). Español L1 y L2 en escolares bilingües vasco-españoles. La escritura de recetas de cocina. In Riestra, Dora; Tapia, Stella Maris & Goicoechea Gaona, M. Victoria (Comps.) *Cuartas Jornadas Internacionales de Investigación y Prácticas en Didáctica de las lenguas y las literaturas, Tomo I*, Bariloche, Argentina. (Pgs. 203-221). (ISBN: 978-987-3667-20-6). (Libro digital: CDD 410) (Disponible: http://editorial.unrn.edu.ar/components/com_booklibrary/ebooks/Congresos_Jornadas_Didactica_Lenguas_Literaturas_1.pdf)
- Idiazabal, I., Manterola, I., Diaz de Gereñu, L. (2015), "Objetivos y recursos didácticos para la educación plurilingüe", in García-Azkoaga & Idiazabal(arg.), in *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*. Bilbao: UPV/EHU.
- Larringan, Luis M^a; Idiazabal, Itziar & García-Azkoaga, Inés M^a (2015). Cartas al director escritas en euskara y castellano por jóvenes bilingües. Transferencias y destrezas textuales y discursivas, In I. García-azkoaga & I. Idiazabal (Ed.) *Para una ingeniería didáctica para la enseñanza plurilingüe*. Bilbao: Servicio publicaciones UPV/EHU pp.147-172.
- Manterola, I. (2015), "Gaztelania H1 eta H2ren garapena 5 eta 8 urte artean: ipuinetako aditz kohesioa aztergai". In Ezeizabarrena, Maria José & Ricardo Gómez (arg.), *Eridenen du zertzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*. Bilbao: UPV-EHUren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Manterola, I. (2015), "Nola aldatu ditu Internetek gure prozesu kognitiboak?" Eusko Ikaskuntza, Urteko Galdera: <http://www.euskonews.com/ug/category/urteko/2015>

- Manterola, I. & Almgrem, M. (2015), "Quelques traits du développement du basque L2 en contexte de revitalisation de la langue à travers l'immersion scolaire", *Revue Suisse des Sciences de l'Education*, 37 (1) 2015, 1-17.
- Ortega, A. & Anakabe, M.J. (2015). "Integración de lenguas y áreas desde los proyectos globales: una propuesta de integración Conocimiento del Medio-Euskera-Lengua castellana-Inglés". En Garcia-Azkoaga, I. & Idiazabal, I. (eds.). *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*. Bilbao, Servicio Editorial de la UPV/EHU. (ISBN: 978-84-9082-205-0). Pp. 291-320.
- Puidgevall, M., Walsh, J., Amorrortu, E. & Ortega, A (en prensa). New speakers and linguistic mudes: becoming, passing and belonging. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*. (4/3).
- Urla, J., Amorrortu, E. , Ortega, A., Goirigolzarri, J. & Uranga, B. (2015, en prensa). "Authenticity and Linguistic Variety among New Speakers of Basque". *Language Documentation & Conservation Special Publication*, ed. by Vera Ferreira and Peter Bouda. *Language Documentation and Conservation in Europe*, 9 (December 2015). pp. 1-12
- Urla, J., Amorrortu, E. , Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (en prensa). "Basque Standardization and the New Speaker: Political Praxis and the Shifting Dynamics of Authority and Value". In P.M.J. Lane & J. Costa (eds). *Standardizing Minority Languages: Competing Ideologies of Authority and Authenticity in the Global Periphery*. Routledge.